



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2019KO APIRILAREN 8AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko apirilaren 8an eta eguadi 17:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ez ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Aitor Arangoa, Xabier Azpiroz, M^a Mar Ansorena eta Bakartxo Ripalda.

17:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Tokiko maparen erreforma. Idazkaritza lanpostu propioa izatea.

Alkateak azaltzen du maparen erreformarekin lotuta beste modu batera antolatuko direla udalerriak eta 3000 biztanletik gorako udalak idazkari lanpostu propioa izanen dute eta salbuespen bezala 1500 biztanletik beherakoak ere, ondoren zehazten diren baldintzetako bat betetzen badute. 2019/4 Foru Legearen 361. artikulua arabera “1.500 bizilagun baino gutxiago dituzten udalerrietan ere berariazko idazkari lanpostu propioa izaten ahalko dute, Nafarroako Foru Komunitatearen gaikuntza duena, hala erabakitzen badu osoko bilkurak bere kideen legeko kopuruaren erabateko gehiengoaz, eta betiere inguruabar hauetakoren bat tartean dela:

–Udalerri konposatuak izatea, idazkari lanpostu propioa dutenak Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legeak indarra hartzen duen egunean, haien populazio-guneen sakabanaketa geografikoa dela-eta komeni denean idazkari lanpostu propioa izatea.

–Haien urteko gastu arrunta, azken bost urteetan, 500.000 euro baino gehiagokoa izatea.

Aipatutako erabakia toki administrazioaren arloko eskumena duen departamentuari igorri beharko zaio bi hilabeteko epean gehienez ere, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legeak indarra hartzen duenetik.”

Basaburuko udalaren kasuan, nahiz eta udalerrri konponsatua izan, ez du idazkari lanpostu propirik, bai Imotz bai Basaburuko udalek zerbitzu administratiboen elkartze bat egin zutelako eta elkartzearen plantillan dagoelako idazkariaren lanpostua.

Aldiz, bai Basaburuko Udalak betetzen duela 2. Baldintza, hau da azken 5 urtetako gastu arruntak 500.000 euro baino gehiago direla. 2014an 552.391,13 eurokoak izan ziren, 2015ean 550.208,30 eurokoak, 2016an 532.151,20 eurokoa, 2017an 573.813,84 eurokoak eta azkenik 2018an 619.863,07 eurokoak.

Aipatutako legea indarrean sartu eta bi hilabeteko epean eskatu ahal dute baldintza hauetako bat betetzen duten udalek idazkari berezko idazkari lanpostua izatea. Ez bada eskaera egiten zerbitzu hau eskualdeak emanen du.

Ikusita 2019/4 Foru Legearen 361, artikulua 2. Baldintza betetzen dela eta hortaz idazkari lanpostu propioa izan ahal duela Basaburuko udalak, bildutakoak aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

-Toki Administrazioaren erreforma arautzen duen 2019/4 Foru Legearen 361. artikulua araberaonartzea Basaburuko udalak idazkari lanpostu propioa izatea eta hau jakinaraztea Toki Administrazioko Departamentura, azken bost urteetan, 500.000 euro baino gehiagokoa izan direla jusefikatzen duen ziurtagiriarekin batera.

- Jakinarazio akordio hau Toki Administrazioko Departamentura.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 18:00 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.